



# KORONABIRUSAK ERAGINDAKO OSASUN LARRIALDIAREN AURREAN HARTUTAKO NEURRI BERRIAK

Koronabirusaren hedapena dela eta, **Eusko Jurlaritzak eta Espāñako Gobernuak osasun larrialdia eta alerta egoera ezarri dituzte**, hurrenez hurren. Egoera horren aurrean, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak neurri berriak hartzen jarraitzen du.

Ondorengo hauek dira neurri berrieke lortu nahi diren **helburuak**:

- Kutsatzeak saihesteko eta COVID-19aren hedapena eteteko dinamikan laguntzen jarraitzea
- Oinarrizko zerbitzuak bermatzea, kolektibo kalteberenei zuzendutakoak, batez ere.
- Etxez etxeko arreta zerbitzua jaso ahal izateko erraztasunak ematea, adinekoen, desgaitasuna duten pertsonen eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza, laguntza eta elikadura bermatzeko.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea
- Enpresa txiki eta ertainei babesa ematea, ahal den neurrian, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak martxoaren 17an zehaztu zuen koronabirusaren ondorioz ezarritako alarma egoeraren aurrean jarduteko protokoloa. **Neurri hauek, beraz, aurretik emandakoen osagarriak dira.**

## • NEURRI OROKORRAK

- Osasun larrialdiaren eta alerta egoeraren **jarraipenerako mahaia** ondorengo hauek osatzen dute: presidenteak, lehenengo presidenteorde eta herritarren informazio batzordeko presidenteak, idazkari kontu hartzaileak eta hondakinen kudeaketa zerbitzuko arduradunak. Mahai horrek lanean jarraituko du: alde batetik, bideokonferentzia, telefono eta posta elektronikoz bidez harremana etengabekoa izango da; bestetik, gutxienez, astean behin bilduko da egoera aztertzeko, eta hala badagokio, neurri berriak hartzeko.



- **Amankomunazgoko langile eta Osoko Bilkurako kideei mezu elektronikoz bidez emango zaie unean-unean hartutako neurrien berri**, orain arte egin den bezala. Horrez gain, asteen behin, alderdi politikoetako bozeramaileei bideokonferentziaz jakinaraziko zaie zein den egoera.
- Amankomunazgoaren bulego eta sailetako garbiketa lanak areagotzeaz gain, ondorengo espazio hauek **desinfektatu egingo dira: Gizate Zerbitzuen egoitza, hondakinen bilketarak pabiloia eta etxerik gabeko pertsonen behin-behineko aterpea emateko egokitu diren instalazioak.**
- Alarma egoerak iraun bitartean, **Osoko Bilkuraren eta informazio batzordeen ohiko bilkura deialdiak bertan behera** utziko dira. Agindu hori, Lehendakaritzaren 174/2020 ebazpenaren bidez eman da.

- **ZERBITZU BAKOITZEKO NEURRI ESPEZIFIKOAK**

- **Gizarte zerbitzuak**

- **“COVID 19ak eragindako krisi egoeraren aurrean etxez etxeko arreta zerbitzuan jarduteko gomendioak. Dokumentu teknikoa”** bidali zaie oinarrizko gizarte zerbitzuetako langile eta zerbitzuaren enpresa esleipendunari. Era berean, **“Alarma egoerak iraun bitartean etxez etxeko arreta zerbitzuari buruzko instrukzioa”** landu da (I. Eranskina)
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten profesionalek **norbera babesteko ekipamendu** egokia izan dezaten, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatu zaio gizarte -eta osasun- arloko langileak ekipamenduz hornitzeko. Babes ekipamenduen banaketa sistema berria hau aste honetan bertan jarriko da martxan.
- Pertsona nagusiei jarraipen telefonikoa egiten ari gara, informazioa eta laguntza psikologikoa eskainiz. Jarraipen hau Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Pertsona Nagusien zerbitzuak eta oinarrizko gizarte langileek egiten ari dira.



- [Hondakin solidoen bilketa zerbitzua](#)

- Martxoaren 19ko SND/271/2020 AGINDUAK COVID 19ak eragindako osasun krisi egoeran hondakinen kudeaketarako jarraibideak zeintzuk izango diren ezartzen du. Horren arabera, ***hondakinen bilketa eta kudeaketa udal eskumenekoa da (...) oinarrizko zerbitzua da.*** Aginduak ezarritakoari jarraiki, **hondakinen bilketa zerbitzua mantendu egingo da frakzio guztietan**, erantsitako txostenean zehaztutako maiztasun eta jarraibideen arabera (II. Eranskina). Era berean, **indartu egingo dira garbiketa eta prebentzio neurriak, eta horretarako, beharrezkoak diren ekipamenduak emango zaizkie langileei.**
- Mankomunatatutako udalei **bando bat argitaratzeko** eskatuko zaie. Bandoan jakinarazi beharko dute zein garrantzitsua den egoera honetan **koltxoiak, altzariak zein tamaina handiko beste elementu batzuk, arropa, jostailu eta hondakin berrerabilgarriak ez ateratzea.**

- [Ekonomia sustapena eta enplegua](#)

- COVID-19ak eragindako krisia ahal den neurrian arintzeko, Behargintza zerbitzua indartu egingo da: langile espezifikoei **informazioa, aholkularitza eta berariazko laguntza eskainiko die eskualdeko enpresei** (profesional autonomo eta enpresa txikiei batez ere), erakunde ezberdinez martxan jartzen ari diren ezohiko neurri eta laguntza ekonomikoen inguruan.

Helburua profesional autonomoek eta ETEek behar duten informazio eta laguntza guztia izatea da, laguntza horiek ahalik eta arinen eskuratu eta jaso ahal izateko

**Abadiñon, 2020ko martxoaren 25ean**